



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko uztailaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko uztailaren 5ean, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : MATEO Jean François.

Deialdiaren eguna : 2023ko ekainaren 30a

Afitzatze eguna : 2023ko ekainaren 30a

3. ERABAKIA: EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREN KARGA TRANSFERITUEN EBALUAKETARAKO TOKIKO KOMISIOAREN (CLECT) 2. ETA 4. TXOSTENEN ONARTZEA (5.7 nomenklatura)

IKUSIRIK, Frantziako Zerga Kodea, bereziki haren 1609 nonies C artikulua;

IKUSIRIK, 2020ko uztailaren 31ko Elkargoko Batzorde Nagusiaren erabakia, zeinean Karga Transferituen Ebaluaketarako Tokiko Komisioaren (CLECT) osaketa finkatzen zen;

IKUSIRIK, Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakariaren 2023ko urtarrilaren 23ko ordenantza, non CLECT komisioaren kideen zerrenda finkatzen zuen;

IKUSIRIK, 2023ko ekainaren 7ko CLECT komisioak egin 2. eta 4. txostenak, hurrenez hurren Hiriko Euri Uren Kudeaketa eta Zuraide eta Hazparneko igerilekuen karga transferentzien ebaluaketa egiten dutenak;

Erabaki baten hartzera deiturik, txostenaren irakurketa entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak:

- **ONARTU DITU**, CLECT komisioren 2023ko ekainaren 7ko 2, 3 eta 4 txostenak, eranskinean agertzen diren bezala;
- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari erabaki honen egikaritzeko izapide guzien egiteko eta gai honi buruzko agiri oro izenpetzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balitzko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko uztailaren 5ean

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/07/13an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/07/13an.